

TURISMOAREN DESESTAZIONALIZAZIOARI BEGIRAKO 2017- KO NEURRIEI BURUZKO MOZIOA

Josu Mirena Ruiz Martinek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua ematen dion aukera baliatuz, turismoaren desestazionalizazioari begirako neurriei buruzko MOZIO hau aurkezten du, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2017ko maiatzaren 15eko bilkuran egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2017ko aurrekontuen eztabaidari amaiera eman zion 2016ko abenduaren 23ko udalbatzarrak. Bertan Donostiako EH Bildu udal taldeak aurkezturiko zuzenketa garrantzitsu bat onartu zen, turismoari begira Udalak egin behar duen politikan eragin behar duena: 100.000 euro bideratzea desestazionalizazioa delakoari..

Urtea bosgarren hilabetean sartu da, uda gainean daukagu eta saturatze egoera eta guneak areagotuko dira. Hori jakinik ere, iazko esperientzia gogoan, ez dugu berri zehatzik aurten Udal Gobernuak honi begira egingo duenez, udal aurrekontuetan diru partida inportantea izan arren, eta zuzenketa alferrikakoa izango ote den zalantza agerikoa da.

Zinegotzi-ordezkariek orain arte egindakoa azaldu zuen batzordean, baina gure ustez haratago joateko momentua iritsi da. Hau da, egiteko modu berriak ikertu, espezializazioan eta segmentazioan areagotu, desestazionalizazioan eraginkortasun handiagoa lor dadin.

Honegatik guztiarengatik, hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA

1-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, udal taldeekin partekatuta, desestazionalizazio estrategia bat gara dezan.



EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 20003 Donostia
eh_bildu@donostia.eus - Tel. 943481027 -



2-Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, udal talde baten emendakina onartzen duenean, honekin gara dezala, bilatzen diren helburuak lor ditzaten.

Donostian, 2017ko maiatzaren 19an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia